

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2008**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontu Orokorraren, bere Erakunde Autonomoaren eta Sozietate Publikoen gaineko fiskalizazio txostena mamitu du, 2008ko ekitaldiari dagokiona. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Legezketasunaren atalean, HKEEk Foru Aldundiaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du, salbuespen izanik txostenean bertan jaso diren hainbat ez-betetze eta Aldundiak Europako Erkidegoetako Auzitegiaren aurrean aurkeztutako kasazioko errekursoaren gaineko zalantza egoera, Aldundiak egindako salbuespen, dedukzio eta hobari fiskalak berreskuratzeari dagokionez; hori dela eta, HKEEk ere azpimarratu du Europako Batzordeak ez duela iritzirik plazaratu Aldundiak 2001 eta 2002an hartutako erabakien exekuzioari dagokionez, ez eta Aldundiak 2009ko azaroaren 20an enpresa bati emandako laguntzak berreskuratzeko egindako errekerimendu eskakizunari dagokionez ere.

Halaber, sarrera fiskalei dagokienez, HKEEk adierazi du fiskalizazio txosten hau jaulki den datan Irungo Instrukzioko Epaitegiak ez duela ebatzi zerga sarrerak baliogabetzeko espedienteetan izandako irregulartasunei buruzko salaketa. Atal honetan bertan, Batzorde Arbitralaren aurrean 34 milioi euro inguruko zor saldoen erreklamazioa ez izapidetu izana azpimarratu da, ezin kobratu izana ekarri duena; baita, 26 milioi euro inguruko zenbatekoarekin zerga zorren gerorapen eskabideak ebazteko Diru-bilketa Erregelamenduan finkatutako epea ez bete izana; horrek ordainketetarako planik ez dela finkatu eta dagozkion bermeak ere ez direla eskatu esan nahi du.

Administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan, salbuespena publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili izanari dagozkio, molde hori erabiltzeko arrazoiak egiaztatu gabe, izan ere, kontratuak zatikatu baitira zazpi kasutan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzea saihestuz, hainbatetan publizitaterik egin gabe; horietan, 7 milioi euro egin duten lau zerbitzu kontratu gailentzen dira eta azkenik, bost

kontratuen exekuzioan aldaketa nabarmenak egin dira, duten zenbatekoa aintzat hartuta (esleitutako zenbatekoaren % 29 eta % 60 arteko igoera egiten dute) kontratuaren xedea desitxuratzen dutenak.

Diru laguntzei dagokienez, HKEEk gailendu du Diputatuen Kontseiluak 22 milioi euro egin dituzten 55 diru laguntza zuzenean eman dituela, egoki den publizitatea eta lehia sustatzeko ezintasuna justifikatu gabe. Egoera berbera errepikatzen da guztira 11 milioi euroko zenbatekoarekin osasun eta gizarte zerbitzuen azpiegiturak garatzeko emandako 17 diru-laguntzatan, izan ere, xede bereko foru dekretu bat baitzegoen. Diru-laguntza hauen onuradunak nagusiki irabazi asmorik gabeko erakundeak eta toki erakundeak dira.

Legezkotasunaren gaineko iritzia ondare eragiketei buruzko atal batekin osatzen da; bertan Aldundiak enpresa bati 3 milioi euroan bi hiri lursailen erosketan objektibotasun eta gardentasun printzipioak urratu dituela azpimarratu da; halaber, aterpetxe baten eta lau etxebizitzaren erosketan prozedura negoziatua erabiltzeko inguruabarrak ez ditu egiaztatu, guztiak egoera babesgabean dauden adin txikikoentzako ez zuzenduak, eta 4 milioi euroko zenbatekoa egin dutenak.

Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia eman du, salbuespen izanik garrantzi txikiko hainbat kontularitzako doiketa eta ibilgetuko hainbat kontu ez xehakatu izana.

Txostenak, gainera, Erakunde Autonomoa eta hiru foru sozietate publikoak fiskalizatzen ditu, HKEEren iritzia aldekoa izanik hainbat salbuespen jakinekin, besteak beste azpimarragarri izanik Uliazpiren kontratu bat eta Bidegi, SAren beste kontratu bat Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitara ez eman izana eta Bidegi, SAren bi obra espedientetan egindako oinarrizko aldaketak, esleipen zenbatekoa, hurrenez hurren, % 36 eta % 34 areagotu dutenak, kontratuaren bolumen ekonomikoa desitxuratuz.

Orobat, Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalei, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, diru-laguntzen emakidari eta langileen kudeaketari dagozkionak. Horietako hainbat egoera eta gomendio aurreko ekitaldietako fiskalizazio txostenetan jasotako berberak dira.

Finantzen Analsiaren atalean ondorioztatu da sarrera arrunten beheraldiak, aurreko ekitaldietakoa baino erritmo biziagoarekin gastu arruntaren igoerarekin batera, emaitza arrunta (sarrera fiskalekin zuzkitutako sarrera ezohikoak kenduta) kapitalezko eragiketen exekuzio garbia finantzatzeko behar hainbatekoa izatea eragotzi duela, erabilitako zorpetzea nabarmen gehituz; halaber, 2008ko ekitaldi itxieran erabilitako zorpetzearen gaineko informazioa ere ematen da (285 milioi euro Aldundiak eta 300 milioi euro Bidegi, SAK), 2009ko aurrekontuetan baimendutako zorpetze mugarekiko (385 milioi euro Aldundiak eta 567 milioi euro Bidegi, SAK).